



LERRO GURUTZA- TUAK

Oier Iruretagoiena

Eremuak jardunaldien barruan, 2016ko abenduaren 2an irakurritako hitzaldian oinarritua.

MEKARTEAK

Euskal Herriko artearen meta-kartografiak
Meta-cartografías del arte en el País Vasco

Facultad de Bellas Artes
Arte Ederren Fakultatea
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Azaleko argazkia

Aitor Izagirre

Maketazioa

Ibon Saenz de Olazagoitia

Edizioa

Olaia Miranda

Lerro gurutzatuak bi eratako edukien arteko analogiak erakusten dituen testu bilduma bat da. Alde batetik, sineskeria eta tradizio herrikoiei multzo bat aurkezten da, hauekin lotutako gertaera eta bestelako datu batzuekin batera. Eta bestetik, artista garaikideen obra batzuen deskribapenak.

Analogia horiek formalak eta kasualak dira, baina sineskeria horien inguruan espekulatzeko bidea zabal dezakete: Nola sortu diren, nola eraldatu diren denboran zehar, edo zergatik eman ote diren antzekotasun horiek testuinguru kultural ezberdinetan.

Lan hau sakonago ikusi aurretik, eta lehenik eta behin, testuinguruan jartzeko, Carlo Ginzburgen lanaz hitz egingo dut pixka batean, Europako sineskeria eta tradizioen ikerketa eta konparaketan lan handia egin duen historialari eta antropologoa berau.

60ko hamarkadaren hasieran, Carlo Ginzburgek sorginkeria eta sabbatha ikertzea erabaki zuen, horien bidez Erdi Aroko eta Aro Modernoko klase subalternoen bizimodua eta mentalitatea ezagutzera iritsi ahal izateko, garai horietako testigantza oso gutxi baitago. Hasieran zerabilen hipotesia, sorginkeria eta haren jazarpena klase borroka mota bat izan zirela zen. Brechtek "Langile baten galderak liburu baten aurrean" poeman dioen bezala, ez dakigu ezer Txinako Harresiko igeltseroetz, ez Zesarren sukaldariak ere. Liburuek erregeez dihardute, eta klase baxuagoen berri eduki nahi izatekotan, zan-

tzu eta arrasto sakabanatuen bila ibili beharra dago. Zantzu horiek topatzeko, inkisizioko prozesuen ikerketara jo zuen Ginzburgek; izan ere, inkisidoreak, nahi gabe, antropologo moduko zerbait izan baitziren, duela mende batzuetako klase subalternoen sineskeria eta ohituren nolabaiteko bilketa burutu zutenak.

Epaiketen transkripzioek informazio asko ematen digute, egin ez balira erabat galduko zena, ahozko kulturak baitziren, eta idazten ez zekien jendea. Gainera, oso zuzen datozen ahotsak dira, duela 400, 500 edo 700 urte esandakoen transkripzio moduan. Hala ere, ez da ahaztu behar akusatuak zirela, seguruenik, euren adierazpenen ondorioen beldur zirela, eta hori dela lekukotasun hauen fidagarritasunerako arazo nagusia. Sarri askotan, inkisidoreen sugestioak jarraituz edo tortura saioetatik pasa ondoren, inkisidoreak bilatzen zuena esaten amaitzen zuten, eta hari heresiari eta sorginkeriarri buruz aurrez zeuzkan ideiak baino ez zitzaizkion interesatzen. Horregatik, galdeketa hauek aztertzea detektibe lana ere bada, lastoa eta garia bereizteko espekulazio ariketa. Zer den egia, zer ezkutatzen duten beldurreratik, zein diren zigorrak ekidin nahian esaten dituzten gauzak, eta zenbat den zuzenean epaileak iradokia edo tortura eta presiopean esanarazia. Beraz, tortura saioetan jazotakoa, bai eta galdeketatik kanpo gertatutakoa ere, berreraikitzen saiatu behar dugu.

Baina nolana, garaiko hainbat prozesuren nahiz bestelako zenbait testigantza eta kroniken arteko konparaketa eta ikerketa bateratuak, imajinario kolektibo desagertu baten zati sakabanatuak eta desordenatuak identifikatzen lagundu du. Eta tarteka badira pitzadurak, non epailearen estereotipoek kutsatu gabeko geruzak azaleratzen diren. Akusatuaren ideia batzuek epailearen aurreiritziekin zerikusirik ez badute, eta ideia horiek akusatu askok errepikatzen badituzte, baliteke hor benetako zerbait egotea. Askotan, uzta onak lortzeko helburua duten sineskeriak edo euren heriotzaren ikuskeraren ingurukoak izaten dira. Inkisidoreak, sorginkeriatzat ulertzen zuten haren bila zebiltzan, eta beren ideia horietan sartzen ez ziren bestelako zenbait

testigantzekin ez zuten zer egin jakiten, hots, erabat anomaloak edo sinesgaitzak izanagatik, deabruzkoak edo kaltegarriak ez ziruditen testigantzekin. Normalki, halako deklarazioak egiten zituztenak aske geratzen ziren, zigorrik gabe.

Konparaketa lan horrek denboran eta geografian oso urrunak diren lekukotasunen arteko analogiak azaleratu zituen. Beste autore batzuek seinalatuak zituzten aurretik paralelismoak, eta Ginzburgek Italiako inkisizioaren artxiboetan egindako ikerketek antzekotasun berriak erakusten zituzten datu gehiago eman zituzten.

Ikus ditzagun lekukotasun horietako batzuk:

1390ean, Milanen, emakume batek esan zuen talde handi batekin elkartzen zela ostegun gauero, eta eta animalia espezie guztiak elkartzen zirela bertan, astoa eta azeria izan ezik. Emakume bat izaten zen taldearen gidaria, eta prozesioan joaten ziren denak elkarrekin, aberatsen etxeak bisitatu eta haietan harrapatzen zutena jan eta edanaz. Bedeinkatu egiten zituzten oturuntza onenak egin ahal izan zituzten etxeak. Batzuetan idi bat hil eta jaten zuten denen artean, baina gero hezur guztiak larrupean bildu eta idia berpizten zuten hezurretan kolpe bat emanaz.

1662an, emakume eskoziar batek esan zuen emakume batek gidatutako gau-bilera batean izan zela, eta jateko gauza zena baino askoz ere haragi gehiago eskaini ziotela bertan.

XVI. eta XVII. mendeetan, Italia iparraldeko 50 bat lagunek *benandanti* zirela esan zuten. Alegia, "bide onetik doana". Eta zertan zetzan *benandanti* izatea? Urtaro bakoitzaren hasieran, eta beti ere ostegun gauetz, uztak lapurtu nahi zituzten izaki batzuekin borrokatzera joaten ziren, haiek uztak eraman ez zituzten eta eskasari ez izateko. Guzti hori, euren esanetan, euren gorputzetatik bananduta egiten zuten, izpiritu hutsez, ikusezin, gorputza ordu batzuez ohean hilik utzita.

Borrokaren ondoren akituta, etxez etxe ibiltzen ziren aurkitzen zuten guztia janaz eta ardoa edanaz.¹

1692an, gaur Letonia den eremuko agure batek esan zuenez, infernura jaisten zen gauzez eta izpiritu hutsez, urtean hirutan, beti ere urtaroren baten hasieran. Han deabruekin egiten zuen borrokan, soroetan ernetako haziak eraman ez zitzaizten. Baina bera ez zen *benandanti*, bera gizotsoa zela esan zuen.

1555ean, Upsalako gotzainak esan zuen gizotsoak etxeetan sartzen zirela gauzez, eta kupeletako garagardo, ardo eta ezti-ur guztia edaten zutela. Hau, normalean, eguberri eguna eta urtarrilaren 6a bitartean gertatzen zen.

1319an, Frantzia hegoaldeko sakristau batek adierazi zuen ardoa uzten zuela bere etxean, bisitan etorritako izpirituek edan zezaten.

Folklorista errusiar batzuek honako lekukotasuna jaso zuten Kaukasian XIX. mendean: Eguberri eguna eta urte amaiera bitartean, komunitateko kide batzuk oparotasun handiko larre batera joaten ziren gauzez eta izpirituz. Han ahalik eta fruta eta zereal hazi gehien hartu behar zituzten, eta ziztu bizian alde egin, atzetik hildakoen arimak zetorzkielako geziak boteaz. Hazi asko hartzea lortzen bazuten, ziurtatuta zituzten uzta onak. Loreak hartzen entretenitzeak, aldiz, komunitatearentzako gaixotasunak zekartzan. Eta hemen ere, izpiritu hutsez eta ezer benetan gorputzezkoa edo ukigarria izan gabe gertatzen zen dena. Eurak, geziak, haziak, loreak, dena zen gorputzik gabekoa.

XVIII. mendean, Laponiako xaman batek hara joandako misiolari daniar batzuei erakutsi zien nola kontu handiz biltzen zituzten sakrifikatutako animalien hezurak, gero berriz berpiztu ahal izateko.

1 Ginzburg, Carlo. "Los benandanti". Universidad de Guadalajara, Mexiko, 2005.

Laburki kontatu badut ere, elementu jakin batzuk behin eta berri errepikatzen direla ageria da. Oturuntza handia egitea, bodegako ardo guztia arpilatzea, norbere gorputzetik ateratzeko gaitasuna izatea, urtaro bakoitzaren hasierako lehen egunak, eguberri egunetik urtezahar gauerako tartea, ostegunak, taldea gidatzen duen emakumea, uztak lapurtu nahi dituztenekin borrokatzea, hildako animalia berpizteko hezurak biltzea... Leku eta urte ezberdinetako hamaikakotxo lekukotasun daude, non elementu berdinak errepikatzen diren behin eta berri, kasu bakoitzean aldaeraren batekin. Gaua da denak bateratzen dituen, eta gainontzean, ia denek dute zerbait besteekin komunean, baina sekula ez dute erabat bat egiten.²

Ginzburgek, historialaria izaki, analogia horiek iradokitzen zituzten komunitate ezberdinen arteko erlazio historikoak ikertu nahi izan zituen, aurrean zeukan puzzlea osatu eta ahal bezala ebazteko. Hala ere, lan hori, dokumentazio eta proba faltagatik, ezinezkoa zen. Lotura historiko ageriko eta ezagunenek ez zioten askorako balio, sineskeria horien zabalkundea iragan urrunago batekoa izan zitekeelako. Hala, historialarien ohiko erremintak kasu honetan nahikoa ez zirenez, konparaketa formalari ekin zion, metodologia hori geruza ezkutu baten kokalekua neurtzeko zunda bat bailitzen. Antzekotasun formalen arabera, kultur-kontestu ezberdinetako mito eta sineskeriak biltzen hasi zen, modu horretan, azaleko parekotasunez haratagoko zerbait aurkitu ahal izateko esperantzan.

Beste aukera bat, guztiz gertagarria, antzekotasun guzti horiek kasualitate hutsak izatea zitekeen. Eta Ginzburgek hasieratik baztertu bazuen ere, gizakiak imajinario jakin batzuetako berezko joera bat izatea ere aukeren artean zegoen ikertzaile batzuentzat.

Erlazio historiko ezezagunak azalaraziko dituzten antzekotasunak bilatzeko konparaketa formala oso erabilia izan da hizkuntzalaritzan ere, batez ere familia ezagunik gabeko hizkuntzen kasuan. Joseph

2 Ginzburg, Carlo. "Historia nocturna". Muchnik Editores, Bartzelona, 1991.

Greenberg hizkuntzalariak konparaketa masiboaren metodoa garatu zuen, lexikoa eta gramatika elementuak alderatzen dituen hizkuntzen arteko kidetasun maila zenbatekoa den neurtzeko. Hala ere, metodo hau oso kritikatu izan da, kasualitate hutsagatik ematen diren antzekotasunak eta zinezko lotura historikoengatik ematen direnak bereizteko gai ez delako. Gizartean zabalduenatarikoa den euskararen inguruko teoria bat adibide ona izan liteke, Kaukasoko hizkuntzekin eta batez ere georgierarekin lotura bat iradokitzen duena, hain zuzen. Balizko lotura hori arrazoitzeko esan izan da, adibidez, “gu” esaten dela bietan adiera berarekin, eta euskaraz “guraso” esaten dioguna “gwari” dela georgieraz. Horiek eta beste antzekotasun batzuk gora behera, besteak beste, zenbakiak hogeinaka kontatzea edo ergatiboaren erabilera tarteko, ia inork ez dio sinesgarritasunik ematen gaur egun teoria honi, eta beste askoren arteko kasualitate bat dela uste da³; nahiz eta, esan bezala, gizartean sustrai indartsuak bota dituen teoria izan. Duela gutxi kalean egindako inkesta batean, Kaukasoa aipatzen zuten askok euskararen jatorriaz galdetutakoan.

Robert Lawrence Trask hizkuntzalariak, bi dozena hitzen antzekotasunean oinarritutako etengabeko teoriiez aspertuta, euskaraz eta hungarieraz antzekoak diren 65 hitzeko zerrenda bat argitaratu zuen, halako teorien egileez trufatzeko asmoz. Esan zuenez, lau ordu eskasetan egin zuen, pare bat hiztegiarekin, eta euskara eta hungariera aukeratu zituen ordura arte konparaketa hori inori bururatu ez zitzaionelako⁴. Hizkuntza bakoitzak izan ditzakeen ehunka edo milaka hitzen artean, oso litekeena da gutxi batzuek soinu eta esanahi oso antzekoa izatea. Baina analogiak sistematikoak ez diren bitartean, ezinezkoa da loturarik frogatzea, loturarik ez dagoela frogatzea ere berdin-berdin ezinezkoa den bezala. Ez dago kasualitatea benetan kasualitatea dela baieztatzeko modurik, eta honek espekulaziorako eremu amaiezina zabaltzen du.

3 Etxeberria, Hasier. “Euskararen jatorria, enigma europar bat”. Etb dokumentalak, 2011-11-30. EITB, 2011.

4 Trask, Robert Lawrence. “The History of Basque”. Routledge, Londres, 1997. 412. orr.

Garatu dudan proiektu hau ere, *Lerro gurutzatuak*, analogia formaletan oinarritutako konparaketan datza. Baina nire artista paperetik, oso urruneko elementuen arteko lotura gertagaitzak egin ahal izan ditut, modu oso intuitiboan, edo are, manipulatzailan. Eta antropologo, historialari edo hizkuntzalari batek ez bezala, zehaztasun zientifikoren batetik letozkeen egiak azalertzeko asmorik gabe. Zantzuak aurkeztu eta elkartzen ditut, errepikapen eta kointzidentzia asko erakutsiz, eta hala geruza ikusezinak ezkututzen direnaren inpresioa emanaz. Beste ezinezko puzzle bat aurkezten da, eta orri bakoitza puzzleko pieza bat da.

Lanean jasota dauden analogietako hiru aurkeztuko ditut, adibide modura.

Joxe Migel Barandiaranek Erreterian jasotako datu batetik dator lehena. Jakingo duzuenez, XX. mendean Euskal Herrian eragin handiko arkeologo, antropologo eta etnologoa izan da Barandiaran. Hitzaldian zehar askotan agertuko da hemendik aurrera, eta aurre-rago ikusiko dugu zehazki zergatik izan den hain garrantzitsua.

60ko hamarkadan Erretereriako Aitzbitarteko leizeak induskatzen ari zen, eta handik gertu zegoen Astabiskar baserrian hartu zuen ostatu. Inguru hartako sineskeriak jasotzeko aprobetxatu zuen egonaldia, eta Astabiskarko familiako amak kontatu zion, esaten zenez, leize haiek kilometro asko zituztela. Behin, orkatz bat sartu omen zen kobetako batean, eta Oiartzungo baserri bateko sukaldean atera zituen gero adarrak. Baserri hori, zehazki, Arandan zela esan zion, handik 6 bat kilometrora zegoena. Barandiaranek jaso egin zuen, eta bere etnologia ikerketatan argitaratu zuen gero. Kasualitatez, aitaren aldetiko nire aiton-amonen baserria da Arandan. Nire anaiak istorioa topatu zuen Barandiaranen liburu batean, eta geure aiton-amonei erakutsi genien. Astabiskarkoak zuzenean entzun izan balituzte, ergelkeriatzat hartuko zuten, esaten diren hainbatetariko fantasiatzat, batere garrantzirik eman gabe. Baina ikertzailearen bitartekaritzak,

eta idatzita eta liburu batean argitaratuta egoteak seriotasuna ematen zion, eta ez zekiten nola hartu. Eurek baino hobeto behar zuen ezagutu euren baserria Barandiaran zelako gizon hark, eta pentsatzen geratu ziren ea non eduki zezaketen zulo hori.

Sukalde batekin lotzen den leizearen inguruko sineskeria honek antzekotasunak ditu Mark Manders artista holandarraren lan batekin. 2010ean, *“Two Connected Houses”* izeneko proposamena egin zuen New Yorkeko Guggenheim museorako. Sukalde bat eraiki nahi zuen museoko atrioan, eta handik tunel bat zulatu 89th Streeteko etxe bateko sukalderaino. Ez zen sekula gauzatu. Ziurrenik, ez zuen inoiz errealitate bihurtzeko asmorik izan, eta ideia proiektatzeko egin zituen eskema, marrazki eta collageak dira benetako lana.

Mark Mandersi bere proiektuaren ingurukoak galde diezaizkiokegu, baina jada Astabiskarko andreak ez. Eta kasualitatea benetan kasualitatea dela ziurtatzeko modurik ez dagonez, nork ezezta dezake ez dagoenik ezer komunean, Mark Manders eta Astabiskakoak sukalde tuneldunak edo kobadunak imajinatzerara eramaten ditueneko horretan?.

Beste adibide bat orain. Kobazuloekiko benetako loturak dituzten eraikinak topatu ditut Euskal Herrian zeharreko ermita eta eliza zenbaitetan. Usurbilen dago bat, Urdaiaga auzoko San Esteban ermitan. Aldarearen eskuinaldean sima batekin lotzen den zulo bat dute, eta sima horren gainean eraikia dago ermita. Ez dago jakiterik noiz eraiki zen, baina dokumentatua dago XVI. menderako bazela bertan ermita bat. Zulo horretan burua sartuta otoitz egiteko ohitura dute, eta hala eginez, beheko barrunbearen erresonantzia eta haize korrontea entzun daitezke. Eta berriz ere Barandiaranekin egiten dugu topo, bera baita hau ikertu duen bakarra. Bere teoriaren arabera, kristautze aurreko kultuen edo praktiken arrastoa da.

Usurbilgo hori eta antzeko beste zulo batzuk bisitatu ditut. Eta bertako jendeak zer esaten duenari kasu hartuta, leku bakoitzean azalpen ezberdinekin egin dut topo, maiz, gurtzen duten santuarekin lotuak daudelarik hauek.

Aralarko San Migelen santutegiko apaiz baten arabera, han duten zuloa ez da burua sartzeko, hainbeste jendeak hala egin arren. Bere hitzetan, kobak gaizkia irudikatzen du, instinturik baxuenak eta ilunenak. Santutegia haren gainean eraiki zen txarkeriak sinbolikoki gainditzeko, baina zulo bat utzi zen irekita aldarean bertan, gaizkiak momenturo mehatxatzen gaituela, eta geuk, geure fedez gaitz horiek kanpora ateratzea ekidin dezakegula gogorarazteko. Kontu hau zuzenean lotzen zuen bertako santuarekin, San Migelekin, zeina deabruak euren kobazuloetatik botatzen dituen santutzat duten.

Usurbilen, bertako serorak ere haien santuarekin, San Estebanekin, zuzenean lotzen zuen teoria bat kontatu zidan. Bibliaren arabera, Esteban harrikatuta hiltzera kondenatua izan zen, lehen martiri kristau bihurtuz. Proto-martirra da. Horregatik da askotan buru inguruan harriak dituela irudikatua. Buruan harrika hil zenez, seroraren arabera hori zen eurek zulo hori edukitzeko arrazoia, eta bertan uste dutenez, buruko minak sendatzeko ahalmena du zuloak.

Baldin eta, Barandiaranek esanda moduan, kultu kristaura ondo egokitu delako gaur arte heldu zaigun kristau-aurreko arrastoa bada, gurtutako santuarekin erlazionatzeko moduak egokitzeko gaitasun handia erakusten du. Momentu bakoitzean gehien komeni den ulkerara egokitzen da zuloa. Sima baten gainean eraikitzeke hasierako arrazoia ez dakigu, sekula ere ez dugu jakingo. Eta espekulatzea bai-zik ez dugula jakitearen lasaitasunez, nire erara interpretatu dezaket. Nire ikuskeratik eskultura bat da, paisaian egindako interbentzio bat, nik egin nahi izango nukeen ekintza artistikoa. Neure egiteko gogo horretatik, nire filtrotik interpretatzen dut. Hasieratik gogoratu bainintzen Bruce Naumanen lurpeko kutzarekin:

70ko hamarkadan, mikrofono bat, bideo-kamera bat eta lanpara bat sartu zituen porlanezko kutxa batean, eta metro eta erdira lurperatu zuen kutxa. Galeria batean, monitore batek denbora errealean jasotzen zituen lurpeko soinua eta irudia, eta zuzenean ikusi zitekeen zer gertatzen zen kutxan. Jakina, ez zen ezer gertatzen.

Lanean jasotako beste kasu ezagun bat Urkiolako santutegikoa da, zehazki bertan duten harriarena. Ezagutzen ez dutenentzat, bikotea topatzeko ahalmena omen duen harria da, eta inguruan itzuli batzuk ematea da horretarako burutu behar den erritua. Oso antzinakoa dela dioten ideiak oso zabaldua daude, baita meteoritoa dela diotenak ere, edo santutegia bertan eraiki izana harri horregatik dela diotenak. Baina alderantziz izan zen, harria garraiatu zuten santutegira. 1929an, garai hartan Urkiolako erretore zena, Benito de Vizcarra, mendi buelta bat egiten ari zen han inguruan, harria aurkitu zuenean. Konposizio oso berezikoa iruditu zitzaion, inguruko beste arkaitzetatik ezberdina, eta santutegira eramana zuten, handik noizbait geologoren bat pasatzean aztertu zezan eta zein harri mota zen esan ziezaion. Jakin-min geologiko bat bezala hasi zena, ustezko harri magiko bihurtu zen. Dirudienez, bikotea aurkitzeko itzuliak emateko ohitura 70eko hamarkadan hasi zen, eta datu oso argigarria izan liteke gertatu den haustura zenbateraino den berria ikusteko. 70ko hamarkadan posiblea zen oraindik halako ohitura edo sineskeria sortzea eta zabaltzea, eta 40 urte geroago, erabat ezinezkoa litzateke.

Hemen ere paralelismo bat egiten dut, Jorge Satorre artista mexikarrak Herbehereetan egin zuen lan batekin, Rotterdamgo portu berriaren eta harri alderraien inguruan. Harri alderraiak inguruko harrien ezaugarriekin bat egiten ez duten harriak dira. Izan ere, glaziarrek garraiatuak izan ziren duela milaka urte, batzuetan milaka kilometrotan zehar, Europa iparralde osoa izotzez estalia zegoen garaian. Herbehereak ia harririk ez duen herrialdea izanik, iparraldean topa daitezkeen gutxi horiek Eskandinaviatik datozen alderraiak dira. 2009an, Rotterdamgo portu berria eraikitzen ari zirenean, dike be-

rriak eraikitzeke harriak behar ziren, eta Norvegiatik eramán zituzten, alderraien jatorri beretik, hain zuzen. Satorrek halako ekintza batek sortzen duen inpaktu ekologikoa konpentsatzeko ideiarekin jokatu zuen, harri bat bere jatorrizko lekura itzularaziz. Modu sinboliko eta ironikoan, noski. Harri alderrai bat azter zezala eskatu zion geologo bati, nondik zetorren jakiteko, eta jatorrizko leku hartara eramán zuten, Suediako baso batera. Prozesuan, Satorrek jendartearen erantzuna irudikatu eta marraztu zuen: Protesta manifestazioak eta garraioa oztopatzeko sabotajeak. Bazekien erantzuna ez zela hori izango, eta inongo arazorik gabe garraiatu zuen. Are gehiago, badira kasuak Herbehereetan, non harri alderrai batzuk suntsitu edo lurperatu diren, paisaia molestatzen zutelako.

Hiru adibide horiek ondo ilustratzen dute nola lan egin dudán. Badira askoz etsenplu gehiago, baina ez dugu orain denborarik denak ikusteko. Eta orain hala aurkeztu baditut ere, paralelismoak ez dira gehienetan sineskeria bakar baten eta artelan bakar baten artekoak. Eduki askoren arteko loturak ezartzen ditut, ezinezko puzzle batera gehiago hurbiltzeko. Eta jakina, dena pasatzen da nire filtro pertsonaletik, nire interes eta afektuetatik. Artelan aukeraketa ere afektuetatik eginga dago, eta ez da nahikoa antzekotasun soila. Analogiak bilatze hutsagatik bilatzea errazegia eta absurdoa litzateke. Gertutasuna eta konplizitatea sentitzen dut aukeratutako artistekiko, eta beraz, niretzat erreferentzia diren artisten mapa bat ere osatzen da azkenean.

Antropologia eta etnologiarekin lan egiteko erabakiaren atzean ere pisu afektibo handia dago, batez ere euskal etnologia dela kontuan hartuta, hain zuzen ere euskal gizartean protagonismo eta ondorio politiko handiak izan baititu. Joseba Zulaikaren arabera, "antropologiak paper pribilegiatua izan du euskal identitate kulturaltzat ulertzen dugunaren fundazio diskurtsoan" [nire itzulpena].⁵

5 Zulaika, Joseba. "Del cromañon al carnaval". Erein, Donostia, 1996. 6-7. orr.

Bai euskal berezitasuna azpimarratu nahi zutenentzat, eta baita ukatu nahi zutenentzat ere, etnologia ikerketek garrantzi handia hartu zuten XX. mendean. Barandiaranek 1921ean sortutako *Eusko-Folklore* elkarteak hasieratik izan zen kazetariak eta politikariak erasotua, separatismo politikoen sorburu modura. Pirinioen mendebaldeko edozein ikerketatan separatismoak ikustea aurreiritzi zentzugabea baino ez zela erantzuten zuen Barandiaranek.

Datu puruaren objektibotasun printzipioa defenditzen zuen Barandiaranek, eta interpretazio errazekiko mesfidatia zen, baina narratiba bat iradokitzen zuen ezinbestean, eta bere hitzen arabera, "euskal mitoeak Paleolitoko ehiztariaren itzalak eta figurak proiektatzen dituzte" [nire itzulpena]⁶. Mito europarren eta erlijio erromatarraren nahiz kristauaren eraginak onartzen bazituen ere, Paleolitik bertan garatu den euskal mitologia original bat badela defendatzen zuen. Berriz ere ezer baieztatu ezin den eta espekulatzerara behartuak gauden eremu batean sartzen gara. Barandiaranek, jakina, bere zalantzak erakusten zituen eta etorkizunean datu gehiagorekin baieztatu beharko lirakekeen probabilitateak zirela azpimarratzen zuen, eta esan beharra dago garai hartan halako teoriak ez zirela arraroak ere, beste antropologo batzuek planteatzen zutenarekiko gertu baitzeuden, batez ere, Vienako eskolakoeak. Hala ere, komunitate zientifikoa erantzat eszeptizismoz onartutako hipotesia izanik ere -ondorenean oso kritikatu izango zena-, komunitate nazionalistarentzat -gerra zibila galdu ondoren jazarrita eta erbesteratuta egonda- euren herentzia kulturala kontserbatzeko borroka legitimatu lezakeen aurkikuntza izan zitekeen. Aldiz, beste batzuentzat, XX. mendeko lehen erdi hartan, "euskal mitologiak" edo "euskal historiaurreak" hitz egitea separatismo ekintza onartezina zen.

Gai hau asko landu izan du Juan Aranzadik ere, eta bere arabera, ezin dira Barandiaran eta bere jarraitzaileak datuen manipulazio

6 Barandiaran, José Miguel. "El hombre primitivo en el País Vasco". Beñat Idaztiak, Donostia, 1934. 52. orr.

ideologiko kontziente batez akusatu. Hipotesi horiek planteatu ahal izateko arrazoiak garaiko testuinguruan bilatu behar dira, kontuan hartuz bai garaiko gizartearen atmosfera ideologikoa, eta baita Vienako antropologia eskolaren oinarri teorikoak ere, historiaurreko sin-eskerien “biziraupena” onartzen zutenak.⁷

Berriz ere Joseba Zulaikaren hitzetara joz, gizarte orok baditu garai jakin batean mito estatusa hartzen duten ideiak eta teoriak. Corpus mitiko horretarako materialak tradiziotik, literaturatik, eta beste diskurtso askotatik datoz, baita zientifikotik ere. Zientziak edo literaturak emanikoa mito bihurtzeak esan nahi du gizarte horren kezka nagusiaren bat egiten duela. Eduki mitikoa pertsonen oinarri afektibo eta pasionalean ezartzen da, eta euskal kasuan, Barandiaranen arkeologia eta etnografia eskolak beste edozein diziplinak baino material gehiago sortu ditu euskal corpus mitikorako.⁸

Leizeek, trikuharriek, historiaurreko aztarnek, argizaiolek, kutxek, mitoek, eta abar, osatutako imajinario hori belaunaldi askoren heziketa sentimentalean dago. Eta gaurko egunean, irudiz jositako aro post-industrial honetan, apropiazioa, nahasketa eta berrirakurketa etengabeak diren garaian, industrializazio aurreko garai ezberdinak plano bakarrean berdintzen dituen iruditeria sortu dugu. Artisau azoka batera egindako bisitan, adibidez, postu berean erraz aurki genitzake haritz hostoak tailatuta dituen argizaiola bat, frontoirako pala lauburuduna edo harlauza modura txapel bat duen miniaturazko trikuharri bat, eta euskal eskultura eskolako egileen estetika gogora dezaketen objektuak topatzea ere ez litzateke arraroa.

Lan hau nolabaiteko “kontu garbiketa” da. Geure oinarri afektiboan ezartzen den eduki horrek eta ikuskera erromantikoak, erakarpena eta arbuioa sortzen dizkidate aldi berean, eta gatazka hori da, hain zuzen, prozesuaren motorra. Erakarpenak edukiak aukeratzera na

7 Aranzadi, Juan. “El milenarismo vasco”. Taurus, Madril, 1982.

8 Zulaika, Joseba. Op.cit. 88. orr.

rama, eta arbuioak berriz, hauek dinamitatzera, bestelakotze edo arrarotze bat sortzeko estrategiak bilatuz, beste ikuskera bat eskaintzeko. Kasu honetan, bestelakotze hori konnotazio erabat ezberdinak dituzten bi eduki mota kontrajarrita lortzen da, eta baita lan guzti honen oinarrian dagoen umorearekin ere. Bestalde, aukeratutako sineskeria eta tradizioak ez dira inolaz ere ezagunenak edo kanonikoenak. Ia dena da bazterrekoa eta ezezaguna.

Guzti hau testu mural batean gauzatzen da, edo web formatuan aurkezteko testu bilduma batean. Ez dago irudirik, hartzailearen irudimena eta zalantza pizteko. Irudi batek zerbaiten itxuraren inguruko geure jakin-mina asetzen du, eta bere existentziaren froga ere bada. Ez erakusteak espekulaziorako aukerak zabaltzen ditu, eta benetakoa edo faltsua ote denaren zalantza mantentzen du.